# INDIAR TXIKIA

Testua: RICARDO ALCÁNTARA

Irudiak: GUSTI

Itzulpena: XABIER OLASO

Bazter borobilak dituen kartoia. 17,5 x 22 cm. 14 or. 12 €.

**Indiar txikia** (euskara)
ISBN 978-84-9172-126-0. Kartoizko. Orriak.

**El joven guerrero** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-491-0. Acartonados. Prelectores.

**O pequeno indio** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-472-9. Acartonados. Prelectores.

**El jove guerrer** (katalana)
ISBN 978-84-16804-79-5. Cartró. Pre-lectors.

**O pequeno guerreiro** (portugesa)
ISBN 978-989-749-122-1. Cartonados. Preleitores.

**Paolino, spirito guerriero** (italiera)
ISBN 978-84-8464-473-6. Cartonati. Prelettori.

*GERLARI GAZTEA DA AURPEGI MARGOTUA,*
*ETA TERO-TERO DA BERE TRIBUA.*

*HERRIXKAN EZ DAGO BERA BEZALAKO BESTERIK,*
*ETA KUARTELEAN BERTAN ERE BADUTE HORREN BERRIRIK...*

Haurtzaroaren irudimen neurrigabea ondotxo islatzen da “Indiar Txikia” liburuan, eta egile bertsuen beste klasiko batera garamatza, “Pirata ausarta”ra, hain justu ere. Oraingo honetan, Juantxoren abenturak Mendebalde urrunean girotuta daude, indiar-bakeroen film ikonikoen eredura. Protagonistak berriro ere ageri-agerian uzten du bere ahalmen neurrigabea, edozein objektu dela ere, lumadun apaingarri bikaina bilakatzeko, edo zela azkarrena, edo arkurik egokiena...

Umorea ezaugarri behinena da Ricardo Alcántaren eta Gustiren liburuotan guztiotan, are gehiago amaren ahots durundatsuak gerlari gaztearen balentriak ustekabean eteten dituelarik. Berriro ere, jolasaren garrantzia ageri-agerian dago istorio dibertigarri honetan. Beronen errima irudimentsuak, arrastoen atzetik joanda, estepa aztertzera gonbidatzen dute -betiere etxetik irten gabe-, edo zaldi gainean trostan ibiltzera, edo kanoaz nabigatzera. Honetan ere, Juantxo txikiaren pasadizoek Maurice Sendaken “Piztiak bizi diren lekuan” liburuko Max ausarta dakarte gogora. Protagonista ekintza bete-betean agertzen duten dinamismo literarioari zati arin eta irregularrekin laguntzen diote ilustrazioek.

Bestalde, fikziotik errealitaterako joan-etorria islatzeko proposamen trebe eta adierazkorra nabarmen gelditzen da; beronek, kontakizunaren hariaren erritmoa hautsi beharrean, nola intentsitatean hala begikotasunean ere indartu egiten du.







- **Gaia:** irudimenezko abentura.
- **Adin gomendatua:** aurre-irakurleak.
- **Nabarmentzeko aldeak:** errimak, dinamismoa, jolasa, irudimena, fantasia. «Pirata ausarta» egileena.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/indiar-txiquia-eusk

## Ricardo Alcántara

(Montevideo, 1946)

Psikologia ikasi zuen Sao Paulon, baina 1975ean Barzelonara aldatu zen eta harrezkero bertan bizi da, literaturari emana. Ehun liburutik gora eman ditu argitara, nobelak -horietako batzuk hainbat hizkuntzatara itzuliak- eta haur eta gazteentzako liburuak tarteko direla. Bestalde, honako sariak ere jaso ditu: Austral Infantil (1987), Lazarillo (1987) eta Apel-les Mestres (1990). Bere ekoizpen literarioa Venezuelako Liburuaren Bankuko Ohorezko Zerrendan eta The White Ravens-en ere ageri da.

## Gusti

(Buenos Aires, 1963)

Fernando Fader Arte Eskolan ikasi zuen eta bere lana nola telebistako animazioaren arlora, hala komikiaren ilustraziora eta album ilustratura ere bideratu zuen. 1985 urtean Europara aldatu zen: Parisera, Madrilera eta Barzelonara. Besteak beste, Apeles-Mestres Saria jaso du eta Bratislavako Urrezko Sagarra (1989), Ilustrazio Sari Nazionala (1994), Lazarillo Saria (1991), Ilustrazioko Sari Iberoamerikanoaren ohorezko diploma (1994), Serra d´Or eta Juncada sariak (2007 eta 2015). Bere obra The White Ravens zerrendan, Venezuelako Liburuaren Bankuan eta IBBY Ohorezko Zerrendan nabarmendua izan da. Einako diseinu eskolako graduondoan eskolak ematen ditu. Naturarekin harremanetan dauden proiektuetan kolaboratzeaz gain, askotariko gaitasunak dituzten pertsonekin arte plastikoak lantzen dituen Windown-La Ventanako sortzaileetako bat da.
http://gustiart.com

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.pamiela.com
soltxate@pamiela.com